

Bestelako gaitasunak dituzten edo gaixorik diren pertsonekin lankidetzan aritzea

EROSKIn, ondo dakigu egunero zer erronka dituzten bestelako gaitasunak dituzten edo gaixotasun baten ondoriozko behar bereziak dituzten pertsonak. Hori dela eta, lankidetzan estua daukagu pertsona horien ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duten erakundeekin.

Arlo horretako proiektuak eta ekimenak babestea ere funtsezkoa da gure gizarte ekintzan, eta, alde horretatik, hainbat lankidetzan hitzarmen sinatu ditugu



Kosta Traila, diabetesa eta giltzurrunetako gaixotasunak dituztenen alde

Aurten, 4.600 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute Kosta Trailen 13. lasterketan; hori dela eta, FORUM SPORTEk, Salomonek eta Laboral Kutxak 14.400 euro eman dizkiote diabetesaren aurkako Bizkaiko elkarteari eta giltzurrunetako gaixotasunen aurkako elkarteari. Diru hori diabetesa dutenen alde erabiliko da, kirola egiteak gaixotasuna eguneroan kudeatzen laguntzen duela era praktikoan ikas dezaten, eta, orobat, giltzurrunetako gaitzak dituztenen alde.

WOP Fundazioa eta EROSKI elkarrekin gaixotasun neurodegeneratiboak sendatzearen alde

EROSKIk eta The Walk On Project fundazioak duten lankidetzaren medioz, konpromisoa hartu genuen bezeroentzat zenbait jardueran antolatzen; bertan parte hartuta, ikerkuntza minutuak batu ziren gaixotasun neurodegeneratiboak sendabidea bilatzeko. Horrela lortu zituzten 51.096 minutu. Bezeroen inplikazioari esker, EROSKIk 30.658 euroko txeki bat eman ahal izan zion WOP fundazioari.

desgaitasunen eta zenbait gaixotasunen inguruan diharduten gizarte erakundeekin. 2018an, 100.000 euro baino gehiagoko ekarpen ekonomikoak egin genituen babesleztan jardueran, eta estatu mailako erreferentziako elkarteekin zein tokiko kolektiboekin laguntzen dieten elkarteekin artean banatu genituen.



VEGALSA-EROSKI gaixotasun arraroak eta kronikoak dituztenen alde

Bat egin dugu gaixotasun arraroen eta kronikoen Galiziako federazioaren "Zuri esker, magikoa izan daiteke" kanpainarekin, Galizian era horretako gaixotasunak dituztenen eta haien senitartekoen kolektiboaren laguntza-beharrei erantzuten laguntzeko. Kanpaina horretan, gure bezeroek gozokizko makila solidario bat erosi ahal izan dute 15 dendatan, euro bakarraren truke. VEGALSA-EROSKIk bildutakoaren %6 gehitu dio guztizkoari, eta, hala, 1.900 euro lortu dira.

Bularreko minbiziaren aurkako borroka

EROSKIk beste urte batez parte hartu du Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarteak emakumeentzat antolatzen dituen zenbait lasterketatan. Gainera, laugarren urtez jarraian, VEGALSA-EROSKIn "Irabazteko prest" kanpaina egin dugu elkarte horrentzat dirua lortzeko, eta informazio liburuxkak banatu ditugu bularreko minbizia hauteman eta hura garatzeko arriskua murrizteko ohituren inguruan.

Larruazaleko minbiziari buruz sentsibilizatzeko kanpaina

Urtero, Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkartearekin jarduten gara, larruazaleko minbiziari buruz sentsibilizatzeko. Kanpainan zehar, mahaiak jarri ditugu gure supermerkatuetan, eguzkia hartzearen inguruan aholkuak emateko, eta larruazala nola ikuskatu behar den erakutsi eta alarma zantzuak hautemateko. Gainera, informazioa emateko hitzaldiak eman dizkiegu CAPRABOko langileei.

Gure laguntza hartzen duten elkarteetako batzuk:

ACAMBI - Bilboko Bularreko Minbiziaren Elkarte
 ADEMBI - Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkarte
 AECC - Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarte
 AEFAT - Familia Ataxia Telangiectasia Espainiako Elkarte
 ALCER - Giltzurrunetako Gaixotasunen Aurkako Elkarte
 ANADI - Nafarroako Diabetesaren Elkarte
 ASPANAFHOA - Arabako Minbizidun Haurren Guraso Elkarte
 ASPANOI - Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkarte
 ASVIDIA - Bizkaiko Diabetikoen Elkarte
 BENE - Gaixotasun neurologikoak dituzten pertsonen eta senideen Bizkaiko elkarte
 COCEMFE - Desgaitasun Fisikoa eta Organikoa duten Pertsonen Espainiako Konfederazioa
 EM Euskadi - Euskadi - Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioa
 EUSKAL GORRAK - Pertsona Gorren Elkarte Euskal Federazioa
 FEDE - Espainiako Diabetikoen Federazioa
 FEKOOR - Gutxitasun Fisikoa edota Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazio Koordinatzailea
 FEGEREC - Gaixotasun Arraroak eta Kronikoak dituztenen aldeko Galiziako Federazioa
 FEM - Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioa
 ONCE EUSKADI- Itsuen eta ikusteko desgaitasuna dutenen bizi-kalitatea hobetzeko helburua duen irabazi-asmorik gabeko korporazioa
 WOP - Walk On Project

